



Lectio divina

1. IRAKURGAIA: Zer dio testuak?

2. GOGOETA: Zer dio niretzat/guretzat testuak?

- ✓ Egiazko poza bizitzera gonbidatzen gaitu Mariak, berak bizi izan zuen bezala. Gauza al naiz poz horretan sakontzeko? ¿Nolakoa da nire poza? Jainkoaren presentzian oinarritzen al da nire poza, Mariarena bezala? Zer edo nor da nire pozaren iturburua?
- ✓ Bere buruaz hustu egin zen Maria, Jainkoaz betea egoteko. Zein gauzak nahiz pertsonak oztokatzen dit Jainkoaz «betea» egotea? Zein gauzari egin behar nioke uko, Jainkoaren graziak nire bizitzan toki handiagoa izan dezan?
- ✓ Maria ez zuen ulertu Aingeruaren mezua, baina ez zuen haren hitza zalantzan jarri. Nola eramaten ditut erabat ulertzen ez ditudan bizipenak, esperientziak? Jarraitzen al dut Jainkoagan konfiantza izaten? Esperientzia horiek oztopo al ditut fede-bidean aurrera egiteko? Probak eta seinaleak eskatzen al dizkiot Jainkoari, Berarengan konfiantza izateko?
- ✓ Mariak baldintzarik jarri gabe eman zion «baietza» Jainkoari. Nola jartzen dut neure bizitza Jainkoaren zerbitzura? Baldintza jartzen al dizkiot, «gerta bekit zuk esan bezala» esateko? Zer dut oztopo neure bizitza Jainkoaren zerbitzura jartzeko

3. OTOITZA: Testu honetan oinarriturik, zer esango genioke Jainkoari?

Mariari begiratzuz, egin dezagun berarekin batean otoitz: «Hona hemen Jaunaren mirabea; gerta bekit zuk esan bezala». Eta bukatzeko, esan diezaiozun: Agur, Maria, graziaz betea...

4. KONPROMISOA: Zer sortzen du nigan/gugan testu honek?

Geure bizitza aztertzeraz gonbidatzen gaitu Mariak. Bizitza aztertzeraz konprometitzen gaitu testu honek. Mariaren «baietak» geure buruari galdetzeraz konprometitzen gaitu. Geure burua Jainkoaren zerbitzura jartzeko ditugun zailtasunak eta oztopoak zein diren aztertzeraz animatzen gaitu Mariak, egiazko pozkida senti dezagun. Ez da hustu eta dena galtzea, baizik eta Jainkoaren presentziaz betetzea.

JAINKOA^{GAN}
JARTZEN
DUT NITZE
ITXAROPENA

Hitzarekin
topatuz

10. fitxa, lk 1, 26-38

POZTU MARIA!



Donostiako
Gozaindegia
Obispado de
San Sebastián



DONOSTIAKO ELIZBARRUTIA
DIOCESI DE SAN SEBASTIÁN

URTEURRISMA
ANNIVERSARIO



Lk 1, 26-38

²⁶ Handik sei hilabetera, Jainkoak Gabriel aingerua bidali zuen Nazaret zeritzan Galileako herri batera, ²⁷ birjina batengana; birjinak Maria zuen izena, eta Jose zeritzan Daviden jatorriko gizon batekin ezkontzeko hitzemana zegoen.

²⁸ Aingeruak, Mariarenean sarturik, esan zion: «Agur, Jainkoaren gogoko hori! Jauna zurekin». ²⁹ Hitz hauek entzutean, ikaratu egin zen Maria eta agur horrek zer esan nahi ote zuen galdetzen zion bere buruari. ³⁰ Aingeruak esan zion: «Ez beldurtu, Maria! Jainkoak gogoko zaitu. ³¹ Hara, haurdun gertatuko zara, semea izango duzu eta Jesus ipiniko diozu izena. ³² Handia izango da, Goi-goikoaren Seme deituko diote, eta bere aita Daviden tronua emango dio Jainko Jaunak. ³³ Israel herriko errege izango da betiko, eta beraren erregetzak ez du azkenik izango».

³⁴ Mariak esan zion aingeruari: «Baina nola gerta daiteke hori, ez bainaiz gizon batekin bizi?». ³⁵ Aingeruak erantzun zion: «Espiritu Santua etorriko da zuregana eta Goi-goikoaren indarrak hodeiak bezala estaliko zaitu; horregatik, zuregandik jaioko dena santua izango da eta Jainkoaren Seme deituko diote. ³⁶ Begira, Elisabet zure lehengusina ere haurdun gertatu da bere zaharrear eta sei hilabeteko dago agorra omen zena; ³⁷ Jainkoarentzat ez baita ezer ezinezkorik.» ³⁸ Orduan, esan zuen Mariak: «Hona hemen Jaunaren mirabea. Gerta bekit zuk esan bezala». Eta aingeruak alde egin zuen.



Textua ulertzeko

- ✓ Lukas ebanjelariak azpimarratu egiten du Ama Birjina. Bere ebanjelio-liburan Lukasek dakartzan lehenbiziko bi kontaerak honako hauek dira: Jesusen jaiotzaren iragarpena eta Mariak Elisabet lehengusuari egin zion ikustaldia. Kontaera horietan ditugu Agur, Maria otoitzaren lehen zatiko esaldietan.
- ✓ Jainkoak, Gabriel aingeruaren bidez Nazaretoko neskatxa hari egin zion agurrarekin hasten dugu otoitza: «Khaire, Agur». Mezuak, hitzez hitz, «poztu!» esan nahi du. Agur xume honek agerian jartzen du zein amultsu eta nolako maitasunez begiratzen dion Jainkoak bere alaba Mariari, eta neska hark duen poza. Poz mesianikoa da: «Poztu zaitez, graziaz bete hori!» (Sof 3, 14-15).
- ✓ Bi esapide hauek, «graziaz betea» eta «Jauna da zurekin» zerikusi handia dute bata bestearekin: Graziaz betea da, bai, Maria, zeren Jainkoa –grazia orenen iturburua eta grazia bera- Mariagan baita. Izan ere, gai da Maria Jainkoa berarengan bizi dadin, bereaz erabat hustu baita, Jainkoaren graziaz betea, Jainkoak betea, egoteko.
- ✓ «Graziaz betea» da Maria, ez hala merezi duelako edota grazia hori bere

ahalmenez duelako, baizik eta Jainkoak era berezian bere gogoko izan duelako eta bere graziaz bete duelako. Maria betetzen duen grazia horrek elikatzen dio Jainkoagan duen erabateko sinesmena. Grazia hori da Mariaren ama-izatearen, pozaren eta itxaropenaren iturria. Grazia horrek egiten du Maria garbi-garbia, inolako bekatu-kutsurik gabea eta Mariak Jainkoa eta lagun hurkoa mugarik gabe maite izatea.

- ✓ «Maria ikaratu egin zen». Halaxe gertatzen da Jainkoak edozeinen bizitzan sartzen denean. Jeremias profetak izan zuen halako bizipena: Ez dezaket hitz egin... (Jr 1, 6); baita Amosek ere: Ni ez naiz profeta, ezta profeta-taldekidea ere; abeltzaina naiz (Am 7, 14). Jainkoarekiko esperientziak gainditu egiten gaitu. Ikaratu, zirraratu, egin behar gaituzte Jainkoak zuzentzen dizkigun hitzek.
- ✓ «Agur horrek zer esan nahi ote zuen galdetzen zion bere buruari». Maria, ordea, ez da zirraratu hutsean gelditzen, hausnartu egiten du eta sakondu bere bizipena.
- ✓ «Ez beldur izan, Maria». Ebanjelioetan maiz azaltzen da beldur ez izateko deia (Pedrori eginga, giza arrantza egingo zuela esatean, Joseri, Maria emaztetzat hartu behar duenean...). Horretara deitzen du beti Jainkoaren hitzak. Konfiantza izateko deia da.
- ✓ «Jainkoak gogoko zaitu». Grazia bera da Jesus. Jaunak onginahiz begiratzen digu. Jainkoak gogoko du Maria, onginahiz begiratzen dio, era berezia maite du.
- ✓ «Nola izango da hori, ez bainaiz inolako gizonekin bizi». Mariak ez zuen ezaugarriarik eskatu, Zakariasek bezala. Konfiantza osoa du Jainkoaren promesan; ez du zalantzarik Jainkoak bere hitza beteko duela. Baina badu gainditu beharreko oztopoa: «ez da inolako gizonekin bizi». Zakariasek ezaugarriarik eskatu zuen arren, Mariak ez du eskatu; hala ere, Jainkoak erakutsi dio ezaugarria: «Begira, Elisabet zure lehengusina haurdun gertatu da bere zaharrear».
- ✓ «Hona hemen Jaunaren mirabea. Gerta bekit zuk esan bezala». Prestasun osoz onartu du Mariak Jainkoaren borondatea. Misterio sakona onartzen du. Gizakundea, zeren Jainkoaren Hitzak giza izatea hartzea baita Jainkoaren nahia. Horretako baliabide bizi eta librea gertatu da Maria. Gizadiaren historia betiko aldatuko du Mariaren «baietak». Jainkoaren Ama bilakatu da, itxaropenaren Ama.

